

## BALOREZKO PROPOSAMENA

Testuinguruari dagokionez, gaur egun klima aldaketaren krisia handitzen ari da, etengabe doa goraka eta geroz eta zailagoa da buelta ematea egoera honi. Industria iraultzak eragin nabarmena izan du noski, batez ere gizakiok berotegi-efektuko gas asko kanporatzen ditugulako eta beroketa prozesua azkartu egin delako.

Lurraren klima aldaketa betidanik egon da uneoro aldatzen, baina astiroago.

Industria guneeek askatzen dituzten gas horiek areagotzen doaz eta berotze globala azkartzen ari da, egoera larriagoa bilakatuz.

Gasen arloan pixka bat sartuta, azalpen erraz eta bizkor bat emango CO<sub>2</sub>-a kaltegarria da atmosfera geruzarentzat, oso apurka, atmosfera zulatzen joaten da. Gas kutsagarri hori industria zentratek askatzen dute nagusiki. Atmosferak eguzkiaren izpi ultramoreetatik babesten gaituzte baina CO<sub>2</sub>-aren kontzentrazioa atmosferan, %50 baino gehiago gehitu da azken urteotan. Zuhaitzek CO<sub>2</sub> -a xurgatzen dute baina zuhaitzen mozketa masiboak, zuzenean eragin dute prozesu honen bizkortzean.



Hartara dator gure proiektua. Ingurumena ez kaltetzeko eta beroketa klimatikoa sahisteko filtro bat izango da guk salduko dugun produktua. Kotxearen tubo eskapean kokatuko da eta esan bezala gutxiago kutsatuko du.

Gaur egun ditugun kotxeek lehen aipatu dudan CO<sub>2</sub>a askatzen dute, eta ez dago kotxerik kutxatzen ez duenik.

Elektrikoak dagoeneko arrakasta izaten ari dira baina jende askok ez du kotxe elektrikorik erosi nahi izaten, prozesu luzea bait dakarki erosketak eta gidatzeko era desberdina erabili behar da. Horregatik gasolinazko kotxeek kutsatu ez dezaten filtro hau sortzen dugu.

Ekoiztutako kotxeetan katalizadorea jartzeko aukera egongo da, alegia, ez da azken urtetan ekoiztutako kotxea izan behar. Produktua jartzeko garaian, ezingo du norberak jarri filtroa, hartara erosketarekin bat etorriko da erosleak gertuen duen mekaniko ala tailerrean filtroa txertatzeko ordainketa.